


## UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/01/23)</b>  Hurrengo saioa: 2018/02/06)	Herri Batzarra	Hurrengo Herri Batzarraren data ez zehaztea erabaki da, aurreikusitako gai batzuen informazioa bermatu ahal izateko. Hauek dira tratatuko diren gaiak: -Itsasoren auzia eta epaiaren erresoluzioa -2017ko aurrekontuen balantzea eta 2018ko aurrekontuen aurreikuspena -Inbertsioen kapitulua -Udal zerbitzuak Itsason -Zaborren kudeaketa -Alegitik Ormaiztegirako irteeraren proiektu zirriborroa -ITE -Eskola mapa	Herri Batzarraren balorazioa egin eta taldeetan landutakoaren jasoketa burutu.
	Erretaularen zabalkundea	Erretaularen zabalkundea bideratzeko plangintza eta horretan lana egingo duen talde baten beharra ikusi da, izan Elkartea, izan Fundazio.	Gaia aztertzen jarraitu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2018/01/26)</b>  Hurrengo saioa: 2018/02/09)	Udaberri auzolanerako aurreikuspenak (apirilaren 14ean printzipioz)	GOIMENera aurkeztu den proiektuarekin lotuta: - Okinarritik Atinzabalera herribidea garbitu, hesia - S Lorentzon iturria eta aska - Seinaleetan zeramika logoak jarri - Alegiko madurako bidean hesia Hauez gain beharrak ikusten dira: - Hilerrirako barandillak pintatu - Sakristi azpia garbitu	Igandeko paseoan (28an) ibilbidea berriz egin, beharraz erreparatuz.  Uren kanalizazioak jarraian egingo lirateke makinaz (Atinzabalgo eta Madurako bideetan).



		<ul style="list-style-type: none"><li>- Itsusturriko lorategia amaitu</li><li>- Zuntz optikoa pasatu den arbola tarteko adarrak moztu</li></ul>	
	Santa Ageda bezperako koplak	Emanaldia Itsasoko ostatuko jangelan, otsailaren 4ean, 12:30etan Kopletan iazko kronika jasotzeaz gain, ditugun herritar berriei ongietorria egin nahi diegu eta gonbidatu ekitaldira. Koplak prestatzeko urtarrilaren 30ean, 19:00etan hitzordua	Erroldatu berriekin egon. Emanaldian kantatuko dena paperean ere banatzeko prestatu.
	Matximentan bertso afaria	Otsailaren 3an, Santa Ageda jaien barnean, urteroko afarira joateko gonbitea itsasoarren artean zabaldu	Kaio arduratuko da
	3. adinekoei eskaintza	Zein eskaintza eskaini ahal daitekeen lantzen hasi gara. Kontsultatuko dugu Ormaiztegirako Lahar enpresak egindako aurreikuspena, Beasaingoa e.a. eta pertsona nagusien disponibilitatea eta interesa	Hurrengo bileran informazioa partekatu eta beste urratsen bat zehaztu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2018/01/27)</b>  Hurrengo saioa: 2018/02/17)	Alegia-Irizar oinezko bidea	Mikel Uribeetxeberriak, Foru Aldundiko Errepide zuzendariak bidalitako proposamena aztertu da. Gabiria eta Ormaiztegiko alkateekin ere aztertua du Gorkak. Eskatu zen planteamendua osatua ez dagoenez, (Agerreberri alderaino eta Alegiako espaloia falta dira), berarekin hitzordua bertan jarri dute astelehenerako, hilak 29, goizeko 8.30etan	Bilera honen berri eta erabakiak partekatu
	Ur Agentzia, Uribarko zubia	Aspaldian zain gaudenez, berriro ere Ur Agentzikoei	Alternatibarik balego, bilera hitzordua



		zubiaren proiektuaren aurrean zein irtenbide planteatzen duten galdetu zaie	eskatuko da
	Alegiko apaiz etxean ur filtrazioak	Altzibarko familiak Itsasoko udalari egoeraren berri eman dio	Teknikoekin aztertuko da
	GOIMENera eskaria	Aurreko bileran jasotako ideia gehienak jaso dira eta aurrekontuekin epe barruan aurkeztu	Zein kronogramapean burutu erabakitzen joan
	Zaborren kudeaketa	Sasieta Mankomunitatean eginiko bileran, Gabiriako ordezkariarekin batera Alegiako bilketa guneaz jardun dute Gorkak eta Xabik, eta zaborren sailkapen kopurua hobetzeko hainbat ekimen posible planteatu.	Lehenbizi datuak (biztanleak, txartelak dituztenak, kosteak...) bildu eta ideiak sakontzen jarraituko da.
	Alegiako obren datak	Urtarrila amaitzearekin bat hasiko dira lanak eta martxoaren 23rako Antiok bukatua izango du bere lana. Jarraian jolas parkeko ekipamendua letorke.	Gasa Elkartetik hartzeko zein baldintzatan burutu adosteko eskaera egin.
	Zozabarroko autobus geltokia	Geltoki honek sarbide txukuna izan dezan, berdegunean espaloia egitea komenigarria ikusten da	Bertan aztertuko da aukera egokiena
	Alegiako frontoiko argia	Elektrizistarekin txanponen bidez erabiltzaileak argia izateko aukera egokiena landuko da	
	Seinale metalikoak	Behar genituen bi STOP seinaleak iritsi dira. Alegian Atsusaingo bidegurutzean (STOP, tonelajea eta abiadura) eta Itturritan (Mandubiatik Itsasora)	Oraindik ez dira baserri bideetakoak (puskatuak, oker daudenak...) iritsi